

KONTROL MOZIOA

Emakumeen Etxearen egoitzari eta baliabideei buruzkoa

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urriaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Beste urtebetez Donostiako Emakumeen Etxeak ikasturte honetan izango duen programa aurkeztu zuen. Ikasturte osoko ikastaro andana, autodefentsa tailerrak, neska gazteentzako jabekuntza eskolak, jatorri anitzeko emakumeentzako gunea, irakurketa feministarako gunea, antzerki eta dantza eskolak... Horrez gain, zerbitzu jarraikor mordera ere bai: etxeko langileentzako aholkularitza, laguntza psikologikoa, lege aholkularitza, ordenagailu eta internet zerbitzua... Kalitatezko eskaintza da Emakumeen Etxearena, eta oro har, erantzun oso positiboa izaten dute eskaintzen diren ikastaro zein zerbitzuek; kasu askotan, eskariak eskaintza gaindituta.

Emakumeen Etxeko erabiltzaileen eta ordezkarien aldetik iristen diren eskariak, ordea, erantzun gabe jarraitzen dute. Azpiegiturak hobetu behar dira, plantilla handitu eta etxeari kokapen berri bat eman ahalik eta azkarren. Horren aurrean, Bozeramaile Batzordearen 2023ko maiatzaren 4ko bileran, Udal Gobernuak konpromisoa hartu zuen Emakumeen Etxea Amara kaleko 11, 13 eta 17an eraikiko diren udal lokal berrietan kokatzeko. Gogoratu behar da esperantzarria izan daitekeen konpromiso hura memoria ekonomiko zehatzik, kronogramarik edo data zehatzik gabe iritsi zela. Horren aurretik, 50.000 euroko partida onartu zen lokal berriaren bilaketarako, eta ulertua dugunez, lokala Amarako etxe berrietan kokatzeko konpromisoaren ondoren, partida bertan behera utzi da, kopuru bera Emakumeen Etxe berrira bideratuta. Horixe da oraingoz publiko egin den zehaztapen bakarra.

Bitartean, Emakumeen Etxeak martxan jarraitzen du. Aipatu bezala, ikastaroak, zerbitzuak eta askotariko arretak. Baina erabiltzailea den edonork ikus dezake Emakumeen Etxeak duen plantilla motz gelditzen dela. Izan ere, oso ohikoa izaten da langileek egiteko bat baino gehiagotan aritu beharra; telefono deiak, arreta bat baino gehiago aldi berean... Urtez-urte hobekuntzak egiten joan arren, motz gelditzen gara

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

oraindik. Emakumeen Etxeak, gainontzeko udal-egoitzek bezala -kultur etxeak, esaterako-, beharrezko ditu harreran eta koordinazioan osoki ariko diren langileak. Egun, horretan ari diren langileak bat eta erdi dira. Bajak, telefono deiak, arreta espezifikoak... egunerokoan arruntak diren egoerak asetzeko ezintasuna dakar horrek. Emakumeen Etxetik eskatzen dena bete bitartean, egungo egoera prekarioan geratuko da zerbitzua. Egun, hain zuzen ere, Berdintasun teknikariek aritu behar izaten dute Emakumeen Etxeko harrerako gain karga kubritzen, eta horrek, naturalki, Berdintasun teknikarien jardunean eragiten du.

Beraz, uste dugu beharrezkoa dela konpromisoa hartzea Emakumeen Etxeko baldintzak hobetu daitezen, eta kokaleku berriari begirako helduleku zehatzak finka daitezen. Orain arteko urratsak ondo daude, baina konpromisoek haratago joan behar dute.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Emakumeen Etxearen kokaleku berria finkatzeko kronograma aurkeztu dezala urtea amaitu aurretik.
- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, kokaleku berria ireki bitartean, egungo etxea egokitzen jarraitzeko lehentasunen araberako plan bat adostu dezala Emakumeen Etxearekin batera.
- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2024tik aurrera Emakumeen Etxeko bi teknikari lanaldi osoan berma ditzan, harrera eta koordinazio egitekoetan osoki aritzeko.

Donostian, 2023ko urriaren 20an

Izar Hernando Ibero
EH BILDU udal taldeko zinegotzia